

| | |
|---|--|
| <p>Begira! Ez da nazkagarria Tximaluze higuigarria? Urte bete eman du ilea ez duela apaindu, bere azazkal eta eskuak garbitzea erabat ahaztuak. Hauxe da tximaluzeena, edonor botaka jartzen duena.</p> | <p>Sieh einmal, hier steht er. Pfui ! Der S t r u w e l p e t e r ! An den Händen beiden Ließ er sich nicht schneiden Seine Nägel fast ein Jahr; Kämmen ließ er nicht sein Haar. Pfui ! Ruft da ein jeder: Garst'ger Struwwelpeter !</p> |
| <p>Santi gaiztoaren istorioa</p> <p>Santi oso gaiztoa zen, gauza onik inoiz ez zitzaion bururatzen. Euliak harrapatzean hegalak kentzen zizkien etxean, txoriak ere hil zituen, eta aulkiak apurtu, haren inguruko katuek gutxi ez zuten sufritu! Haur gaiztoa, animaliak aztoratzeaz gainera, ausartu zen etxeko neskamea gogor jotzera.</p> | <p>Die Geschichte vom bösen Friedrich</p> <p>Der F r i e d e r i c h , der Friederich, Das war ein arger Wüterich ! Er fing die Fliegen in dem Haus Und riß ihnen die Flügel aus. Er schlug die Stühl' und Vögel tot, Die Katzen litten große Not. Und höre nur, wie böse er war: Er peitschte, ach, sein Gretchen gar !</p> |
| <p>Behin batean txakur handi bat han zen iturriko urarekin egarria kentzen. Xanti ez zegoen denbora galtzeko, bertaratu zen sardarekin jotzeko. Mutilak txakurrari eman zion barrez nahiz ta txakurrak zaunka egin negarrez. Ostikadak ere gogor jo zizkion txakurrari kolpe ta kolpe, errukarri!</p> | <p>Am Brunnen stand ein großer Hund, Trank Wasser dort mit seinem Mund. Da mit der Peitsch' herzu sich schlich Der bitterböse Friederich; Und schlug den Hund, der heulte sehr, Und trat und schlug ihn immer mehr</p> |
| <p>Orduan, kosk egin zion eta odola Santiri hankatik zeriola, negar batean korrika etxera zihoan, baita txakurra ere, baina sardarekin ahoan.</p> | <p>Da biß der Hund ihn in das Bein, Recht tief bis in das Blut hinein. Der bitterböse Friederich, Der schrie und weinte bitterlich. - Jedoch nach Hause lief der Hund Und trug die Peitsche in dem Mund.</p> |

| | |
|--|--|
| <p>Hankan min hartuta geratu zen Santi ohean sartuta. Eta etxera bisitan medikua etortzean hartu zuen botika mingotsa, eta ipurdikoa atzean.</p> | <p>Ins Bett muß Friedrich nun hinein, Litt vielen Schmerz an seinem Bein; Und der Doktor sitzt dabei Und gibt ihm bitt're Arzenei.</p> |
| <p>Txakurra, ordea, borroka bukatuta han zegoen mahaian Santiren lekua hartuta, jan eta edan, ardo eta tarta, hartu zuen betekada aparta. Baina txakurra nola beti izan den zaintzaile ona, orain berak eramaten du sarda hara eta hona.</p> | <p>Der Hund an Friedrichs Tischchen saß, Wo er den großen Kuchen aß; Aß auch die gute Leberwurst Und trank den Wein für seinen Durst. Die Peitsche hat er mitgebracht Und nimmt sie sorglich sehr in acht.</p> |

Pantxike eta pospoloak

Die gar traurige Geschichte mit dem Feuerzeug

| | |
|--|--|
| <p>Pantxike etxean bakarrik zegoen bapo bere gurasoak kanpoan zeudelako. Etxe osoan zehar galduta zebilen dantzan eta kantuka egongelan aurkitu arte pospoloak kutxa baten aparte. Orduan, jolasteko gogoarekin esan zuen pospoloari helduz esku batekin: "Amak egiten duen antzera pospolo bati noa sua ematera".</p> | <p>P a u l i n c h e n war allein zu Haus, Die Eltern waren beide aus. Als sie nun durch das Zimmer sprang Mit leichtem Mut und Sing und Sang, Da sah sie plötzlich vor sich stehn Ein Feuerzeug, nett anzusehn. "Ei," sprach sie, "ei, wie schön und fein ! Das muß ein trefflich Spielzeug sein. Ich zünde mir ein Hölzlein an, wie's oft die Mutter hat getan."</p> |
| <p>Katarramiauk eta Mixinak Pantxike geratzeko egin zituzten ahaleginak, eta behin eta berriro egin zioten abisu: "Aitak debekatu dizu, miau, miu eta mau, miau, aizu! Utz ezazu, erre nahi ez baduzu!".</p> | <p>Und M i n z und M a u n z , die Katzen, Erheben ihre Tatzen. Sie drohen mit den Pfoten : "Der Vater hat's verboten !" Miau ! Mio ! Miau ! Mio ! Laß stehn ! Sonst brennst Du lichterloh !"</p> |
| <p>Pantxikek ez zituen katua lar ulertzen, pospoloak politak baitira daudenean erretzen. Marrazkian ikus dezakezuen bezala, pospoloa erre ahala pozaren pozez egongelan zehar hor zebilen saltoka eta katamar.</p> | <p>Paulinchen hört die Katzen nicht! Das Hölzchen brennt gar lustig hell und licht, Das flackert lustig, knistert laut, Grad wie ihr's auf dem Bilde schaut. Paulinchen aber freut sich sehr Und sprang im Zimmer hin und her.</p> |

| | |
|--|--|
| <p>Katarramiauk eta Mixinak Pantxike geratzeko egin zituzten ahaleginak, eta behin eta berriro egin zioten abisu: "Aitak debekatu dizu, miau, miu eta mau, miau, aizu! Utz ezazu, erre nahi ez baduzu!"</p> | <p>Doch Minz und Maunz, die Katzen, Erheben ihre Tatzen. Sie drohen mit den Pfoten: "Die Mutter hat's verboten ! Miau ! Mio ! Miau ! Mio ! Wirf's weg ! Sonst brennst Du lichterloh !"</p> |
| <p>Ene, ene! Momentu batean soinekoa su eta ketan! Gero ilea joan zen errez eta horrela gorputz osoa berez.</p> | <p>Doch weh ! Die Flamme faßt das Kleid, Die Schürze brennt; es leuchtet weit. Es brennt die Hand, es brennt das Haar, Es brennt das ganze Kind sogar.</p> |
| <p>Katarramiauk eta Mixina katuek lagundu nahi zuten biek: "Miau, miu eta mau, miau, lagundu! Norbaitek ezin al du konpondu? Pantxike erretzen ari da zeharo eta laguntza non dago?"</p> | <p>Und Minz und Maunz, die schreien Gar jämmerlich zu zweien : "Herbei ! Herbei ! Wer hilft geschwind ? Im Feuer steht das ganze Kind ! Miau ! Mio ! Miau ! Mio ! Zu Hilf' ! Das Kind brennt lichterloh !"</p> |
| <p>Arropa eta gorputza dena bihurtu zen kea eta hautsa. Soilik zapata pare gorri ederrena da lurrean erre gabe geratu dena.</p> | <p>Verbrannt ist alles ganz und gar, Das arme Kind mit Haut und Haar; Ein Häuflein Asche bleibt allein Und beide Schuh', so hübsch und fein.</p> |
| <p>Katarramiauk eta Mixina katuek, oraindik negarrez jarraitzen dute biek. "Miau, miu eta mau, miau " diote suabe "Gurasoak non ote daude?" Eta beraien malkoak lurrera jausten dira bertan sortuz itzelezko aintzira.</p> | <p>Und Minz und Maunz, die kleinen, die sitzen da und weinen : "Miau ! Mio ! Miau ! Mio ! Wo sind die armen Eltern ? Wo ?" Und ihre Tränen fließen Wie's Bächlein auf den Wiesen.</p> |

Mutil beltzak

Die Geschichte von den schwarzen Buben

| | |
|--|---|
| <p>Kalean bazebilen bilintzi-balantza gaua bezain mutiko beltza, eta eguzkia zenean beroa zuenez aterkia eramaten zuen babestu nahiez.</p> | <p>Es ging spazieren vor dem Tor Ein kohlpechrabenschwarzer Mohr. Die Sonne schien ihm aufs Gehirn, Da nahm er seinen Sonnenschirm.</p> |
| <p>Behin kale beretik zetorren basati bandera eskuan zeukan Iñaki,</p> | <p>Da kam der L u d w i g hergerannt, Und trug sein Fähnchen in der Hand.</p> |

| | |
|---|--|
| <p>Markel ere betiko moduan ogitartekoarekin eskuineko eskuan,</p> | <p>Der K a s p a r kam mit schnellem Schritt Und brachte seine Bretzel mit.</p> |
| <p>eta Txominek bere jostailuarekin batera egin zuen gauza berbera:</p> | <p>Und auch der W i l h e l m war nicht steif Und brachte seinen runden Reif.</p> |
| <p>barre egin zuten bapo bestea oso beltza zelako</p> | <p>Die schrie'n und lachten alle drei, Als dort das Mohrchen ging vorbei, Weil es so schwarz wie Tinte sei !</p> |
| <p>Orduan hurbildu zitzaien kalera oparik dakartzan Olentzero bera, etas esan zien hiruretako bakoitzari "Entzun ondo eta egon adi! Joan zaitezte di-da batean eta utzi beltza bakean. Erruduna ez da bera, ez delako zuria zuen antzera!". Baina hirurek kasurik egin ez eta jarraitu zuten lehengo legez.</p> | <p>Da kam der große N i k o l a s Mit seinem großen Tintenfaß. Der sprach : "Ihr Kinder, hört mir zu Und laßt den Mohren hübsch in Ruh' ! Was kann denn dieser Mohr dafür, Daß er so weiß nicht ist wie ihr ?" Die Buben aber folgten nicht Und lachten ärger als zuvor Über den armen schwarzen Mohr</p> |
| <p>Olentzero hain haserretuta zegoen dena zela oihu eta eromen. Mutikoek ezin zuten alde egin, harrapatuta zeuden-eta Markel, Iñaki eta Txomin. Olentzerok laster jarri zituen igerian tinta beltz artean tintontzian, eta beltz-beltz jarri ziren goitik behera nahiz ta borrokatu heroien antzera.</p> | <p>Der Niklas wurde bös und wild, Er packte gleich die Buben fest, Beim Arm, beim Rock, bei Rock und West' : Den Wilhelm und den Ludewig, Den Kaspar auch, der wehrte sich. Er tunkte sie in die Tinte tief, Wie auch der Kaspar "Feuer" rief. Bis übern Kopf ins Tintenfaß Tunkt sie der große Nikolas.</p> |
| <p>Horrela bukatu zituen bere lanak Olentzero jaunak. Okerkeriak ditu bihurtu ezberdin eta arraroak, hasierako beltza baino beltzagoak. Beltza orain kaletik ikusten da aurean, eta beste hiru belztuak aldamenean.</p> | <p>Du siehst sie hier, wie schwarz sie sind, Viel schwärzer als das Mohrenkind ! Der Mohr voraus im Sonnenschein, Die Tintenbuben hintendrein; Und hätten sie nicht so gelacht, Hätt' Niklas sie nicht schwarz gemacht.</p> |

Ehiztari basatia eta erbia

Die Geschichte vom wilden Jäger

| | |
|--|---|
| <p>Goizean goiz ehiztariak jantzi zituen arropa berriak, motxilan sartuz eskopeta eta polbora, untxiaren atzetik joateko mendian gora</p> | <p>Es zog der wilde Jägersmann Sein grasgrün neues Röcklein an; Nahm Ranzen, Pulverhorn und Flint' Und lief hinaus ins Feld geschwind.</p> |
| <p>ia-ia aurrekoa ezin ikusita betaurreko handiak jantzita.</p> <p>Erbiak bitartean, zuhaixkan babesturik barre egiten zion ehiztariari ezkutaturik.</p> | <p>Er trug die Brille auf der Nas' Und wollte schießen tot den Has.</p> <p>Das Häschen sitzt im Blätterhaus Und lacht den wilden Jäger aus.</p> |
| <p>Eguerdirako sasoia zegoen oso eguzkitsua, eta jadanik bizkarrean eskopeta bihurtu zen pisutsua Beraz, ehiztaria etzan zen belar artean erbia adi-adi zegoen bitartean. Zast! Kendu zizkion kentzekoak: eskopeta pisutsua eta betaurrekoak.</p> | <p>Jetzt schien die Sonne gar zu sehr, Da ward ihm sein Gewehr zu schwer. Er legte sich ins grüne Gras, Das alles sah der kleine Has'. Und als der der Jäger schnarcht' und schlief, Der Has' ganz heimlich zu ihm lief Und nahm die Flint' und auch die Brill' Und schlich davon ganz leis' und still.</p> |
| <p>Erbiak ipini zituen orduan betaurrekoak bere lekuan, eskopeta gorantz altxatu eta ehiztariari apuntatu!</p> <p>Besteak ihes egiten zuen bitartean beldurrez oihu eta oihu: "Lagundu, mesedez!"</p> | <p>Die Brille hat das Häschen jetzt Sich selbst auf seine Nas' gesetzt Und schießen will's aus dem Gewehr.</p> <p>Der Jäger aber fürcht' sich sehr. Er läuft davon und springt und schreit: "Zu Hilf', ihr Leut', zu Hilf' ihr Leut' !"</p> |
| <p>Etxera heldu baino lehen ehiztariak urtegira salto egin zuen bere bizitza salbatzeko asmoz, besteak hil nahi baitzuen tiroz.</p> <p>Hori gertatu zen orduan etxeoandrea leihoan zegoen kafe-katilua eskuan. Erbiak ehiztariari gogoz egin zion tiroa eta emakumeak oihu egin zuen: "Jainkoa!"</p> | <p>Da kommt der wilde Jägersmann Zuletzt beim tiefen Brunnchen an. Er springt hinein. Die Not war groß; Es schießt der Has' die Flinte los.</p> <p>Des Jägers Frau am Fenster saß Und trank aus ihrer Kaffeetass'. Die schoß das Häschen ganz entzwei, Da rief die Frau : "O wei ! O wei !"</p> |

| | |
|---|---|
| <p>Kafea, sustoarekin batera, jausi zen leihotik behera, eta leihopean zegoen erbikumea izan zen gehien sufritu zuen errugabea. “Leihopean jolasean nenbilen lasai, zergatik erre didate sudurra, ai!”.</p> | <p>Doch bei dem Brännchen heimlich saß Des Häschens Kind, der kleine Has'. Der hockte da im grünen Gras; Dem floß der Kaffee auf die Nas' Er schrie: "Wer hat mich da verbrannt ?" Und hielt den Löffel in der Hand.</p> |
| <p>Lurtxu, atzamarra ahoan</p> | <p>Die Geschichte vom Daumenlutscher</p> |
| <p>“Lurtxu, banoa kanpora, eta zu etxean geratuko zara”. Bere amak esan zion: “Itzuli arte, formal egon! Nik esandakoa kontuan hartu, beraz atzamarrrik ahoan ez sartu! Eta entzun ondo, kuttuna, bestela, etorriko zaizu jostuna eta artaziz moztuko dizkizu berehala atzamarrak papera balira bezala”.</p> | <p>" K o n r a d ! " sprach die Frau Mama, "Ich geh' aus und du bleibst da. Sei hübsch ordentlich und fromm, Bis nach Haus ich wieder komm'. Und vor allem, Konrad hör' ! Lutsche nicht am Daumen mehr; Denn der Schneider mit der Scher' Kommt sonst ganz geschwind daher, Und die Daumen schneidet er Ab, als ob Papier es wär'."</p> |
| <p>Ama joan zenean etxetik kanpora, Lutxuk atzamarra sartu zuen ahora.</p> | <p>Fort geht nun die Mutter und Wupp ! den Daumen in den Mund.</p> |
| <p>Bat-batean entzun zen kolpea eta ireki zen atea! Han zetorren jostuna artaziekin nahiz ta lurtxu txikiak sinetsi ezin. Esku biak odoletan, nolako mina! Lehenengo ezkerria eta gero eskuina, lurrean geratu ziren bi erpuruak bere eskutik galduak!</p> | <p>Bauz ! Da geht die Türe auf, Und herein in schnellem Lauf Springt der Schneider in die Stub' Zu dem Daumen-Lutscher-Bub. Weh ! Jetzt geht es klipp und klapp Mit der Scher' die Daumen ab, Mit der großen scharfen Scher' ! Hei ! Da schreit der Konrad sehr.</p> |
| <p>Eta ama etxera heldu zenean, bere haurra nola topatu zuen han: triste eta penagarria atzamar gabeko Lurtxu berria.</p> | <p>Als die Mutter kommt nach Haus, Sieht der Konrad traurig aus. Ohne Daumen steht er dort, Die sind alle beide fort.</p> |

Praixku zoparik ez

Die Geschichte vom Suppen-Kaspar

| | |
|---|--|
| <p>Praixku zen herriko haur osasuntsuena, Ume borobil eta potoloena, haren masailak gorri-gorriak ziren zopajale ona zela nabarmen, “Ez noa zopa gehiago hartzera!”. eta pozoia balitz legez oihu egin zuen: “Zoparik ez!”:</p> | <p>Der K a s p e r , der war kerngesund, Ein dicker Bub und kugelrund, Er hatte Backen rot und frisch; Die Suppe aß er hübsch bei Tisch. Doch einmal fing er an zu schrei'n : "Ich esse keine Suppe ! Nein ! Nein, meine Suppe ess' ich nicht !"</p> |
| <p>Hurrengo egunean begi bistan zen Praixku hasia zela argaltzen. Koilararekin gogor aritu zen joka plateran amak jarri zion zopa, berriro oihu egiten zuen bitartean: “Ez dut jan nahi, eta utzi bakean!”.</p> | <p>Am n ä c h s t e n Tag, - ja sieh nur her ! Da war er schon viel magerer. Da fing er wieder an zu schrei'n : "Ich esse keine Suppe ! Nein ! Ich esse meine Suppe nicht ! Nein, meine Suppe ess' ich nicht !"</p> |
| <p>Hirugarren egunean jada bazen nabarmenagoa Praixkuren gorputza zegoela ahulagoa. Eta berriz, bazkalorduan betiko legez: “Ez dut nahi zoparik! ez!”. Oihuka hasi zen bera: “Ez noa zopa gehiagorik hartzera!”.</p> | <p>Am d r i t t e n Tag, o weh und ach ! Wie ist der Kaspar dünn und schwach ! Doch als die Suppe kam herein, Gleich fing er wieder an zu schrei'n : "Ich esse keine Suppe ! Nein ! Ich esse meine Suppe nicht ! Nein, meine Suppe ess' ich nicht !"</p> |
| <p>Laugarren egunerako ez zen normala, bakarrik hezurra eta azala! Baina burugogor jarraitzen zuen bapo nahiz ta ezingo zuen izan luzerako.</p> | <p>Am v i e r t e n Tage endlich gar Der Kaspar wie ein Fädchen war. .</p> |
| <p>Azkenean bosgarren eguna bihurtu zen beltza bezain iluna, ez zuenez ezer sartu sabel horretan gosez hil zen mutikoa bertan.</p> | <p>Er wog vielleicht ein halbes Lot - Und war am f ü n f t e n Tage tot</p> |

Asisko, geldi egon ezina

Die Geschichte vom Zappel-Philipp

| | |
|---|--|
| <p>“Mesedez Asisko ez izan okerregia, bestela izorratuko duzu afaria”. Esan zion aitak haserre, eta inork ez zuen egin barre, ama isilik zegoen bitartean begiradarekin plater artean. Baina Asiskok, ez zuen egin kasurik, ez! Eta tontokerietan hasi zen, betiko legez, gora eta behera, eskuinera eta ezkerrera,</p> | <p>"Ob der P h i l i p heute still Wohl bei Tische sitzen will ?" Also sprach in ernstem Ton Der Papa zu seinem Sohn, Und die Mutter blickte stumm Auf dem ganzen Tisch herum. Doch der Philipp hörte nicht, Was zu ihm der Vater spricht. Er gaukelt Und schaukelt,</p> |
|---|--|

| | |
|--|---|
| <p>aulki gainean ipurterre, geldi egon ezinik, eta aita haserre.</p> | <p>Er trappelt Und zappelt Auf dem Stuhle hin und her. "Philipp, das mißfällt mir sehr !"</p> |
| <p>Haur maiteok begiratu adi zer gertatu zitzaion mutilari! Marrazkian ondo ikus daiteke okerkerietan jo ta ke. Aulki gainean ere egin nahi zuen dantza, baina oreka mantentzea zen latza, orduan, mantela hartu zuen zarataka lurrera jausten zen bitartean bueltaka.</p> <p>Bat-batean dena erori zen lurrera, eta oihu egin zuten denek batera! Segidan tximurtu zen aitaren kopeta, ama isilik zegoen bitartean mahaira begira negar artean.</p> | <p>Seht, ihr lieben Kinder, seht, Wie's dem Philipp weiter geht ! Oben steht es auf dem Bild. Seht ! Er schaukelt gar zu wild, Bis der Stuhl nach hinten fällt; Da ist nichts mehr, was ihn hält; Nach dem Tischtuch greift er, schreit.</p> <p>Doch was hilfts ? Zu gleicher Zeit Fallen Teller, Flasch' und Brot. Vater ist in großer Not, Und die Mutter blicket stumm Auf dem ganzen Tisch herum.</p> |
| <p>Asisko mantal azpian estalita, han zegoen inork ezin ikusita. Janari gozoa lurrean galduta eta plater guztiak apurtuta, zopa, ardoa, tarta eta ogia: zikin-zikin lurrean galduta afaria. Bitartean gurasoak gero eta haserreago zeuden afaltzeko ezer ez baitzegoen.</p> | <p>Nun ist der Philipp ganz versteckt, und der Tisch ist abgedeckt, Was der Vater essen wollt', Unten auf der Erde rollt; Suppe, Brot und alle Bissen, Alles ist herabgebissen; Suppenschüssel ist entzwei, Und die Eltern stehn dabei. Beide sind gar zornig sehr, haben nichts zu essen mehr.</p> |

Amets ameslaria

Die Geschichte vom Hans Guck-in-die-Luft

| | |
|---|---|
| <p>Ikastetxeko bidean eta handik bueltan Amets beti zihoan ametsetan. Zeruan zegoen edozein gauzak erakartzen zituen bere bi begiak: behin hodeiek, hurrengoan txoriek... Zerbait ikusiz gero hegan egiten, ez zion kasurik egin gabe joaten uzten, edozer gauzari begiratzen zion pozik aurreko bideari izan ezik.</p> <p>Amets, beti begirada zeruan edo zazpigarren munduan!" deitzen zioten txantxa moduan. Gorantz beti zegoen begiratzen ea zer berri zuen aurkitzen.</p> | <p>Wenn der H a n s zur Schule ging, Stets sein Blick am Himmel hing. Nach den Dächern, Wolken, Schwalben Schaut er aufwärts allenthalben: Vor die eignen Füße dicht, Ja, da sah der Bursche nicht, Also daß ein jeder ruft: "Seht den Hans Guck-in-die-Luft !"</p> |
|---|---|

| | |
|--|--|
| <p>Bere bidetik egun batean txakur handi bat etorri zen bakean, baina Amets inork ez zuenez ohartarazi aurrez aurre topo egitean, zapaldu egin zuen kasi! Orduan ihes egin zuen zarataka galtzontziloetan eginez kaka!</p> | <p>Kam ein Hund daher gerannt; Hänslein blickte unverwandt In die Luft. Niemand ruft: "Hans gib acht, der Hund ist nah !" Was geschah ? Bauz ! Perdauz ! - da liegen zwei ! Hund und Hänschen nebenbei.</p> |
| <p>Beste batean antzera zebilen portuan ikastetxeko paper zorroarekin eskuan, eta ohikoa zuen moduan bere begirada galduta zegoen zeruan, txoritxoei begiratzen eta pixkanaka ur ertzera hurbiltzen. Arrainek sumatu zuten gertatuko zena, beraz, preparatzea zuten onena.</p> | <p>Einst ging er an Ufers Rand Mit der Mappe in der Hand. Nach dem blauen Himmel hoch Sah er, wo die Schwalbe flog, Also daß er kerzengrad Immer mehr zum Flusse trat. Und die Fischlein in der Reih' Sind erstaunt sehr, alle drei.</p> |
| <p>Urrats bat gehiago eman, eta buruz behera zaku bat bezala jausi zen ur artera. Arrainek hartu zuten bai susto galanta, eta azkar egin zuten hanka!</p> | <p>Noch ein Schritt ! und plumps ! der Hans Stürzt hinab kopfüber ganz ! - Die drei Fischlein, sehr erschreckt, haben sich sogleich versteckt.</p> |
| <p>Zorionez, gizon bi hurbildu ziren begiratzeko Amets zertan zebilen. Eta oso azkar makila baten laguntzaz uretatik atera ahal izan zuten erraz.</p> | <p>Doch zum Glück da kommen zwei Männer aus der Näh' herbei, Und die haben ihn mit Stangen Aus dem Wasser gefangen.</p> |
| <p>Portuan gizon biekina batera zegoen uretatik at gertatutakoa sinetsi ezinik erabat, ura zeriola iletik eta arropetatik haserre zegoen umorea galdurik, mela-mela gorputz osoa blai hurrengorako ez badu ikasten ... jai!</p> | <p>Seht ! Nun steht er triefend naß ! Ei ! Das ist ein schlechter Spaß ! Wasser läuft dem armen Wicht Aus den Haaren ins Gesicht, Aus den Kleidern, von den Armen; Und es friert ihn zum Erbarmen.</p> |
| <p>Arrainak, interesa galdu gabe, berriz hurbildu ziren badaezpada ere Amets gaixoari begira jarriz burua uretatik aterata irriz. Eta Ametsen ikastetxeko paper zorroa bitartean etxeko lanekin galdu zen ur artean!</p> | <p>Doch die Fischlein alle drei, Schwimmen hurtig gleich herbei; Strecken 's Köpflin aus der Flut, Lachen, daß man 's hören tut, Lachen fort noch lange Zeit; Und die Mappe schwimmt schon weit.</p> |

Martin hegalaria

Die Geschichte vom fliegenden Robert

| | |
|---|--|
| <p>Euria ea haizea badabiltzala gogor etxetik ez da ateratzen inor, denok geratzen gara etxean epel-epel babesean. Baina Martinek ez zuen berdin pentsatu: "Ezin naiz etxean geratu", eta kanpora egin zuen alde euritakoarekin abentura zale!</p> | <p>Wenn der Regen niederbraust, Wenn der Sturm das Feld durchsaust, Bleiben Mädchen oder Buben Hübsch daheim in Ihren Stuben. - R o b e r t aber dachte : Nein ! Das muß draußen herrlich sein ! - Und im Felde patschet er Mit dem Regenschirm umher.</p> |
| <p>Kalean, haizea asko harrotu zen eta erraz zebilen zuhaitzak makurtzen.</p> <p>Begira! Nola zebilen haizea airean zerabiltzala haurra eta ama gaztea! Martin bat-batean haizeak eraman zuen zerura</p> <p>laino eta izarren mundura, bere txapela eta aterkia galduta eta haurra negar batean izututa.</p> | <p>Hui wie pfeift der Sturm und keucht, Daß der Baum sich niederbeugt !</p> <p>Seht ! Den Schirm erfaßt der Wind, und der Robert fliegt geschwind durch die Luft so hoch, so weit; Niemand hört ihn, wenn er schreit. An die Wolken stößt er schon, Und der Hut fliegt auch davon.</p> |
| <p>Haizeak nora eraman zuen gure laguna? Inork ez daki oraindik erantzuna!</p> | <p>Schirm und Robert fliegen dort Durch die Wolken immerfort. Und der Hut fliegt weit voran, Stößt zuletzt am Himmel an. Wo der Wind sie hingetragen, Ja, das weiß kein Mensch zu sagen</p> |
| | |
| | <p>VORSPRUCH</p> |
| <p>Jesus umea Jesus umea goitik dagoenez begira haurrak formal egon behar dira. Zopa jaten badute ederto, eta guzti, konpleto! Gainera ondo jolastea badute lege inori eskandalua sortu gabe, eta patxadaz badabiltza kalean amak esan duen antzean, beraientzat izango dira opariak, tartean marrazkidun liburu interesgarriak!</p> | <p>Wenn die Kinder artig sind, kommt zu ihnen das Christkind; wenn sie ihre Suppe essen und das Brot auch nicht vergessen, wenn sie, ohne Lärm zu machen, still sind bei den Siebensachen, beim Spaziergehn auf den Gassen von Mama sich führen lassen, bringt es ihnen Gut's genug und ein schönes Bilderbuch.</p> |
| | |